

Ekintza

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

“ADIERAZTEKO 100 MODU, SORTZEKO 100 MODU: DENBORA, ESPAZIOA ETA MATERIALAK”

HELBUURUAK

- Ikastetxeko guneetan esperimentatzea eta esploratzea, naturako elementuak eta egunerokotasuneko objektuak adierazpen- eta komunikazio-helburuetarako erabiliz
- Ikastetxeko zenbait gune girotzea

LANDUTAKO GAITASUNAK

- Kultura humanistikoa eta artistikoa
- Pertsonaren autonomia eta ekimena

Dokumentu honetan, gaiarekin lotuta dauden beste eduki batzuen estekak eskaintzen dira. Horiek PDF pantailan kontsulta ditzakezu, inprimatu beharrean.

JARDUERAREN GARAPENA

Hezkuntzako lehen urteetan garatzen den adierazpen artistikorako eremua planifikatzeko orduan, alderdi konplexu batekin egiten dugu topo: **Noiz jorratu? Zenbat denbora dugu plangintza hori garatzeko?** Hurrengo bideoan, denborak eremu horren garapenean duen garrantzia ulertu ahal izango dugu.

<http://aulainfantil.grao.com/recursos/la-creatividad-necesita-tiempo>

Bistakoa den moduan, denborarik gabe ezin da esperimentaziorik edo ikerketarik gauzatu. Horregatik, denborak duen garrantzia arrazoitzen duen bideo honetan, asteko edo hamabost egun bakoitzeko goizeko nahiz arratsaldeko saioak sistematizatzea proposatzen dugu, etaparen plangintzaren barnean.

Horrez gain, honako kezka hau azpimarratu beharko genuke:

Non gauzatu proposamena?

Erantzuna beste bideo honetan aurki dezakegu.

<https://www.youtube.com/watch?v=BFNi0TcVKTY>

Iraunkortasunerako hezkuntzatik, ikastetxeko zenbait guneetan ikertu eta esperimentatu dadila sustatzen dugu, eta ez gelan bakarrik, baita tailerretan, pasilloetan, eskaileretan, aretoetan, patioetan, jangeletan, sarreretan eta abarretan ere. Izan ere, gune horiek euskarri gisa balio dute eskola-elkarteari ikasleek sentitzen, esperimentatzen eta ikasten dutena jakinarazteko.

Proposamen honekin, espazioak girotzea eta gure eskola-bizitzan ikasten eta denbora gehien pasatzen dugun lekuak leuntzea eta gozatzea lortuko dugu; jarduera horrek helburu nagusietako bat izan beharko luke iraunkortasunaren alde lan egiten duen ikastetxe batentzat. Espazioak ez dira neutroak eta horiek ere ikasten



laguntzen digute, El Safareig web orrian ikus dezakegun moduan.

<http://www.elsafareig.org/safareigesp/creativat/observar/observar2.htm>

Bertan, hori nola egin erakusten duten hainbat adibide aurkituko ditugu.

Azkenik, honako hau ere kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat izango litzateke: **Zer material erabiliz gara ditzakegu horrelako esperientziak?**

Ihitzaren beste zenbaki batzuetan adierazi dugun moduan, naturako elementuak eta eguneroko objektuak erabiliz garatu behar ditugu proiektuak, jarraian adierazten diren adibideetan ikus daitezkeen moduan.

Ihiza 34: Harriz harri. Harriekin apaingarriak egitea. Lurreko elementuak eredutzat hartzea

Ihiza 39: Horma berdeak patioan. Ekoizpen plastikoetan modu sortzailean parte hartzea.

Ihiza 41: Geodibersitatea: Arrokkak erabiliz aztertu, jolastu, sailkatu eta ikastea.

Oraingo honetan, beste zerrenda hauek eskaintzen dizkizuegu:

Naturako elementuak eta egunerokotasuneko materialak

ikastetxeko guneetan ikertu, esperimentatu eta sortzeko. Ideia horiek guztiak gune batzuetan garatzen ari dira hainbat proiekturen bitartez, eta eredu horiek lagungarriak izan daitezke

Haur Hezkuntzako proiektuak: instalazioak – arte komunitarioa

Bestalde, elementu sinpleekin hasi nahi baduzue, harriekin, hostoekin, paper-bilkariekin, kartoiekin, esponjekin edo “post it”-ekin, adibidez, gune hau ikustera gonbidatzen zaituztegu:

Lehen hezkuntza eta hezkuntza artistikoa. Objektuekin esploratzea.

Eta hemen, zuen ikasleekin sortzeko aukera gehiago dituzue, mota askotako adibideak eta materialak erabiliz::

- Zuhaitzak
- Artileak
- Tapoiak
- Gatza
- Maskorak
- Harriak
- Txotxak eta pintzak



Hori guztia hor dago, hartu eta bitzta emateko zain. Eta guk hori egiten, ikertzen, osatzen eta komunikatzen jarrai dezakegu..



Beste erreferentzia interesgarri batzuk:

- Aula 77 sep-oct 2014 Instalaciones para el juego pre simbólico y simbólico.
- <http://www.oei.es/educacionartistica/primera infancia/indice.php>
- <http://createctura.blogspot.com.es/>

